

Oyartzun-go Mitxelena Gipuzkoa-ko txapeldun

Joan zan illaren II-an Eibar-en azken aurreko bertsolari txapelketa egin ondoren, ura zala ta geiago urduri bizi giñan azkenengo auzia ezagutu arte. Eibar-en zortzi bertsolari utzi ziran aurrerako: Iztueta, Mitxelena, Garmendia, Lazkano, «Lexoti», «Zepai», Egileor eta Uranga. Beretatik aurrenengo azaldu zana Iztueta «Lazkao-txiki» genuan. Berari ta egun artako saioari buruz jardun giñan aurreko EIBAR aldizkarian. Ta, goazen orain amaieraren mamiaren berri ematera.

Il onen 10-ean, goiz ta artsaldea, jokatu zuten Ernani-ko zineman izendatutako zortzi bertsolari oiek. Eibar-en izandako puntuazioa aintzat artu gabe.

Jendetza ikaragarria izan zan, egun asko aurretik etzan zinemarako sarrerarik, ta orregaitik irratiz ere zuzenki ematea erabaki zuan Euskaltzaindiak. Orain bi urte Donostia-n Mitxelena-ri jarritako puntua ta bere erantzuna etzetorten gaitziki Ernani-ko egun ortan ere:

PUNTUA.

Ez al zera izutzen
ainbeste jendekin?

Mitxelena-k.

Onelako lekuan
bai leike itzegin.
Onera bildu zaigu
zenbat euskaldun fin;
auek ikusi-eta
biotzak atsegin.

Ez zan ez gutxiagorako Ernani-koa ere. Aldez aurretik, jendearen agoetan, Iztueta, Mitxelena eta Garmendia zebiltzaten onenetarikotzat. Ta, etziran iritzi okerrak.

Lenengo nor geiagokan Mitxelena, Garmendia, Iztueta eta Lazkano pasatu ziran aurrerako. Eibar-ko antera gutxi gora-bera. Mitxelena gogoz azaldu zan eta bera zan aurrenetik eta geiago puntuaziorik onena zeramana; goizean Garmendia-rekin estu xamar zebillelarik. Arratsaldean Mitxelena-k bere mallan kunplitu zuan, Garmendia zerbait jetxi zan eta Iztueta «Lazkao-txiki» goruntza. Iru auen ondoren Lazkano arpeitiarra, ta ez ain urrun.

Mitxelena-k etorri aundia zuan egun aretan. Artsaldeko saioaren erdi alde-runtz makal unetxo bat nabari zuan, po-to bat ere egiñaz, baña ondoren kement-su jardun zan igoaz.

Lauretatik bi jarri ziran aurrerako: Mitxelena ta Iztueta. Azkenaldera Garmendia zerbait beratu zan eta Lazkano gora, baña beren puntuazioa, gutxigaitik, besteena baño beeraxeago gelditu zan.

Mitxelena-k tinko zaindu zuan bere malla ta «Lazkao-txiki»-k ez orde. Azkenengo bertsoetan bi pote izan zituan

alkarren ondoren Lazkao-koak, ta gañera bertso maxkalagoak egiñaz; eta orrek berezi zuan bien arteko auzia: Mitxelena Gipuzkoa-ko txapeldun.

Lenago ere ongi ezaguna zan Mitxelena-ren bertsoarako doaia, 1959-garren azaroaren 8-an Gipuzkoa-ko bigarren gelditu zan Eibar-en, Uztapide-ren ondoren. Gañera gogoangarriak dira 1960-garren urteko abenduaren 18-an Donostia-n egin zituan iru bertso aiek, bertsolari zarreri buruz zuan iritzia azalduz:

Garai bateko bertsolariak,
bai, bazituzten almenak;
aiek etzitun, gaztea zan da,
ezagutu Mitxelenak;
esaten dute entzundakoak
aiek zirala onenak;
berexiko'itut neuk irakurri
eta entzun nituenak.

Lengo zarretan esatezkeroz,
auxe nuke esan bear;
gure agotik ateratzen da
aienzako zenbat dear;
Xenpelar zanak ere euskerai
ematen zioan indar;
eta Otaño genduna ere
ezda atzera utzi bear.

Zenbat burutan asmoa, jaunak
zenbat aldeta diran da;
lengo zar aiek ezagutu ezak
neurtzeko du asko lan da,
bañan entzuna da irakurria
det gogoan eramanda;
bat bereixteko, nik Otaño-ri
dauzkat eskerrak emanda.

Lengo zarren oroitzapenez ederki jarriak dira, baña uste degu gaurkoak ere ez dirala atzean uztekoak; Basarri, Xalbaor eta Uztapide maixu dirala, Ernani-ko gazte oiek badute bertsoarako espala, etorria ta biotz-indarra.

Aipatutako saio orren inguruan egin zan Fabiola Beljika-ko erregiñ, ta jakiña, bertsolariere ere gai berrien artean bera azaldu bear. Ara Mitxelena-ren bertso ederra:

PUNTUA.

Belgatarren erregin
egin da Fabiola.

Mitxelena-k.

Eta ori kentzerik
ezdago iñola.
an ere sartu dute
emengo odola;
urte askuan Jainkuak
zorion diola.

Puntu ori, iru bertsolarik alkarrena entzuteke jarri bear izan zuten, ta bertsolarietako bat NARBARTE NAPARRA izan zan, ta berea etzan izan gutxiagorako. Bere bertso funtsik gabekoa entzun da, jendea

eta juradua agoa zabalik gelditu ziran, baña gero jakin zan NARBARTE-K etzekiela Fabiola zer zan, biolin mota berriren bat, areoplanua ala kafeteria; ta jakiña, zer esan momentu larri aretatik ateratzeko? Nolabait bete bear bertsoa eta orrela jarri zuan; Alfonso-k eman zionean puntua:

PUNTUA.

Belgatarren erregin
egin da Fabiola.

NARBARTE-K.

Igarri diot, Alfonsok,
egia diola;
beste gañekoan etzan
mintzatuko orla
ontxen pentsatzen det
zerbait badagola.

Beintzat ur eman zion, zerbait bazegola igarri zionean. Bearbada, NARBARTEK gutxien uste zuana zan Fabiola erregiña zala. Naparroako basamortuetan ez baita ezagutzen orlako pritzirik.

Pixkat aldendu gera geure gaitik. Bertsolaria izan banintz puntuak galtzeko bidea.

Egun bikaña izan zan Ernani-koa. Bertsolari gaiak zirrikatzen gaituanok, berriz ere larri biziko gera Donostia-n Euskalerriko txapelketa nagusia ezagutu arte. Il onen ogeita-amarra izendatu da ortarako. Ernani-ko saiotik Mitxelena ta Iztueta joango dira, Bizkai, Naparroa ta Frantziako Euskalerritik beste biña izango dira, ta aiekin batean, orain Euskalerriko lenengo ta bigarrenengo diran Basarrik eta Uztapidek parte artuko dute. Jai aldi orrekin pentsatzean, Mitxelena-k berak orain bi urte egin zituan bertso aiekin gogoratzen gera, barrido berdiña gertatuko dala usterik. Donostia-n izango baita bertso zaleentzako egun aundia. Mattin-eri ta berari bertso biña eskatu zien gai librean eta Mitxelena-k jarritakoak auek izan ziran:

Aizazu, Mattin, gaur Donostiyan
auxen da egun alaia;
zuk ere noski eukiko zendun
onera etorri naia;
emen kristaua lasaituzten da;
len zegoana da alda ia;
euskaldunak'e alkar biltzeko
noz bait bagendun garaia.

Emen biotza biguindu leike
len izanda're marmola;
iruritzen zait gaur dana dala
euskaldunaren odola.
Ala ez danen bat onuntz bilduta
gertatu liteke orla;
bañan usten det ura bera're
euskaldun einda dagola.

Juan San Martín.